



AMERIKA

ARLOA: Musika

MAILA: Lehen Hezkuntzako 1, 2 eta 3 mailak

DENBORALIZAZIOA: 6 ordu, 30 minutu

HELBURU OROKORRAK

- Euskarazko IKT baliabideei esker, ikasleen konpetentzia musikala garatzea.
- Herrialde ezberdinetako kultura ezagutzea.

HELBURU ZEHATZAK

- Amerikako dantzak, abestiak, berezitasunak eta bitxikeriak ikastea.
- Berdinen arteko komunikazioa bultzatzea.
- Aurkezpen-gaitasunak garatzea.
- Taldeko lana sustatu eta jorratzea.

JARDUEREN SEKUENTZIA

A) HASIERA FASEA

1. JARDUERA: Kontinentea ezagutzen

B) GARAPEN FASEA

2. JARDUERA: Herrialdeak ezagutzen
3. JARDUERA: Peru
4. JARDUERA: Brasil
5. JARDUERA: Bolivia
6. JARDUERA: Costa Rica

C) AMAIERA FASEA

7. JARDUERA



A) HASIERA FASEA

1. JARDUERA: Kontinentea ezagutzen

Denbormalizazioa	45 minutu
Materiala	Arbela, idazteko materiala (boligrafoa, papera, ordenagailua...), informazioa bilatzeko materiala (liburuak, entziklopedia, interneteko sarbidea duen ordenagailua...)
Helburuak	<ul style="list-style-type: none">• Landuko duten kontinentea ezagutzea.

Hasierako fase honetan, landuko duten kontinentea ezagutuko dute ikasleek. Hasteko eta behin, ikasle bakoitzak Amerikari buruz dakiena kontatuko du, izan bertan egon delako, interesatzen zaiolako, nonbaiten entzun duelako, pelikula batean ikusi duelako edo dena delakoa. Kontakizun guztiak izango dira baliozkoak.

Ondoren, ikasleak binaka jarriko dira eta galdera batzuk erantzun beharko dituzte Amerikari buruz, eta amaitzeko, landuko diren herrialdeak mapan kokatu beharko dituzte. Azken ariketa hau binaka egin daiteke edo arbel digitala baldin badaukazue, denon artean egin dezakezue ariketa.

B) GARAPEN FASEA

2. JARDUERA: Herrialdeak ezagutzen

Denbormalizazioa	Ordu bat
Materiala	Arbela, idazteko materiala (boligrafoa, papera, ordenagailua...), informazioa bilatzeko materiala (liburuak, entziklopedia, interneteko sarbidea duen ordenagailua...)
Helburuak	<ul style="list-style-type: none">• Landuko dituzten herrialdeei buruz informazioa eskuratzea.• Egokitutako herrialdeari buruz aurkezpena egitea.

Jarduera honetan, berriz, talde txikitik jarriko dira ikasleak eta talde bakoitzari herrialde bat esleitu zaio. Ondoren, talde hauetako bakoitzak dagokion herrialdeari buruzko honako informazio hau bilatu beharko du gutxienez:

- Non dago kokatuta?



- Nola izena du bere kostak?
- Zenbat biztanle ditu?
- Zein dira jaki ohikoenak?

Galdera gehiago erantzuteko askatasuna emango zaie ikasleei. Ondoren, berriro taldekatzeak egingo dira, horrela, talde bakoitzean herrialde bakoitzeko pertsona bat egongo da gainontzekoei herrialdea aurkeztu ahal izateko.

3. JARDUERA: Peru

Denbormalizazioa	Ordu bat
Materiala	Eskulanak egiteko materialak (kartulinak, margoak, arkatza, artaziak)
Helburuak	<ul style="list-style-type: none">• Luma bat egitea.• Herrialdeko dantza ikastea.

Landuko den lehen herrialdea Peru izango da, bertan, eskulanak egin behar dute, luma bat zehazki. Horretarako honako materialak beharko dituzte:

- Kartulina (koloretakoa edo txuria, beraiek margotu dezakete nahi bezala)
- Margoak
- Arkatza
- Artaziak

Bakoitzak bi luma egin beharko ditu gutxienez, eta hau amaitzean, kantuekin batera dantza egin beharko dute ikasleek.

4. JARDUERA: Brasil

Denbormalizazioa	Ordu bat
Materiala	Eskulana egiteko materiala (tutua, gometsak, margoak...)
Helburuak	<ul style="list-style-type: none">• Tutua egitea.• Herrialdeko dantza ikastea.

Brasilen kasuan ere eskulan bat egin beharko dute, tutu bat apaintzea hain zuzen ere. Horretarako, sukaldeko paperaren tutua, gometsak, margoak eta apaintzeko edozein material beharko dituzte ikasleek. Behin tutuak eginda, dantza ikasi beharko dute.



5. JARDUERA: Bolivia

Denbormalizazioa	Ordu bat
Materiala	Eskulana egiteko materialak (tutuak, zelo, gometsak, margoak, arroza...)
Helburuak	<ul style="list-style-type: none">• Euri makila egitea.• Herrialdeko dantza ikastea.

Oraingo honetan ere eskulana egin beharko dute, aurrekoaren antzekoa baina oraingo honetan euri makila izango da. Horretarako, bi tutu, zelo lodia, arroza eta apaintzeko materialak beharko dituzte ikasleek. Behin euri makila eginda, Boliviako dantza ikasi beharko dute.

6. JARDUERA: Costa Rica

Denbormalizazioa	Ordu bat
Materiala	Kanon-aren aurkezpena
Helburuak	<ul style="list-style-type: none">• Kanonaren oinarriak erakustea.• Kanona modu praktiko batez lantzeko gidalerroak eskaintzea eta hori lantzea.

Lehenik eta behin, kanon bidez abestutako abesti bat entzungo dute, eta hori hartuko da oinarri bezala, ondoren kanona zer den ikasleei azaltzeko. Jarduera honetan, beraz, ABESTIA landuko dute.

Hasteko, webgunean bertan aurkituko duten audioa entzungo dute, kanon bidez egindako abesti bat, hain zuzen ere. Abestiaren letra bertan aurkituko dute, musikarekin batera abestu dezaten. Jarraian, kanona zer den azaltzen dien aurkezpen bat aurkituko dute webgunean. Bertan, modu laburrean, kanon bat zer den ikusiko dute adibide errazen bitartez.

Behin kanona zer den ikasi eta modu praktiko batean landu ostean, Costa Ricako abestiaren kanona lantzeko unea da. Ikasleek azalpen-bideoa izango dute eskuragarri, Costa Ricako abestiaren kanona nola egin jakiteko. Abestia eta dantza ikasi eta erakustalditxo bat egin beharko dute gero.



C) AMAIERA FASEA

7. JARDUERA

Denboralizazioa	45 minutu
Materiala	Arbela, idazteko materiala (boligrafoa, papera, ordenagailua...), informazioa bilatzeko materiala (liburuak, entziklopedia, interneteko sarbidea duen ordenagailua...)
Helburuak	<ul style="list-style-type: none">● Ahozotasuna garatzea.● Herrialde ezberdinak ezagutzea.

Azken ariketa honen bidez, kontinente honetan landu diren herrialdeetatik gehiena zein gustatu zaien herrialdea aukeratzeko eta honen arrazoiak emateko eskatuko zaio ikasle bakoitzari. Hau, talde handian egingo dute, iritziak partekatzeko eta baita ahozotasuna lantzeko ere. Ondoren, ezagutzea gustatuko litzaieken leku bati buruzko informazioa aurkitu beharko du ikasle bakoitzak. Horretarako, ondorengo galde hauez osatutako gidalerroa eskainiko zaie:

- Non dago kokatuta?
- Kostarik ba al du?
- Zergatik ezagutu nahi duzu?

Ondoren, binaka jarriko dira eta elkarri aukeratutako herrialdea aurkeztuko dio.